

B euskararen BERRIPAPERERA

Euskalgintza eta Bideogintza deialdiak

Urtean zehar Hizkuntza Politikarako Sailordetza plazaratu ohi dituen deialdien artetik, biren berri dakarkizuegu, *Euskalgintza* eta *Bideogintza* izenekoena hain zuzen ere. Guztira, 82.100.000 pta.

*Euskalgintza*ren bitartez 65.000.000 pta. banatu dira aurten. Horietatik 15.000.000 pta. enpresetan euskararen erabilera areagotzeko planak bideratzeko eta burutzeko izan dira. Ia 4.000.000 pta banatu dira dagoeneko plana abian izan eta jarraipenerako eskatu duten enpresen artean: CAF, Fagor Sistemak, Irizar, Elay, Alejandro Altuna, Arlan, Alecop, MCC, Fagor Ederlan eta Maier.

Plana hasi aurreko bideragarritasun-azterketa egiteko edota diseinua burutzeko eskatu duten enpresen artean 11.000.000 pta. banatu dira, Ikerlan, CAF, Fagor Elektra-

tresnak, Gureak, Aspace, Fagor Arrasate, Fagor Automation, Fagor Ederlan, Danobat, Fagor Elektronika, Orna, TTT, Matrici eta ITP enpresen artean.

Deialdiaren beste multzo batean, hots, euskararen ondarea jaso, gorde eta gizareratzekeo egitarauak laguntzekoan, 10.000.000 pta banatu dira egitasmo hauen artean: Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen *Xenpelar Dokumentazio Zentroa*, Bizkaiko Ikastolen Elkartearen eta Labayru Ikastegiaren *Urte Sasoial* izeneko programa, eta Euskal Kulturaren Batzarrearen *Euskal Herriari Buruzko Fondon Osaketa*.

Haur eta gazteentzat

Hirugarren multzorako, hau da, euskaraz egindako materialak sustatzeko eta bideragarriago egiteko ekimenetarako edo ekintza-programetarako,

10.000.000 pta. zeuden aginduta. Hala ere, atal honetan 7.331.628 pta. banatu dira, eta soberakina hurrengo atalera pasa da. Donostiako Bagera Elkartearen *Galtzagorri* ekimena, Berbaro Elkartearen *Haurren Literatura Jaialdia*, Donostiako Gotzaindegiaren zenbait egitasmo, Eusko Ikaskuntzaren *Eleria* aldizkaria, Ikuskin S.L. enpresaren *Haur Hizkera* bideoa, Labayru Ikastegiaren *Irratsaio literarioa* eta Txatxilipurdi Elkartearen *Oiloloke xoua*, izango dira atal honetatik dirulaguntza jasoko dutenak.

Arauari jarraiki, epaimahaiak soberan geratzen zen diru-kopurua beste atalen artean banatu ohi du beti. Hori horrela, laugarren multzorako, euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko, 6.906.987 pta. banatu dira egitasmo hauen artean: Euskal Idazleen Elkartearen *Idazleekin solasean* programa; Europa Press Ordezkaritzaren *Hizkuntza Normalkuntzarako Batzordea*; Euskerazaleen ZER aldizkaria; AED Elkartearen *Jokin Zaitegi Itzulpen Sariketa*; Dobera Euskara Elkartearen *Hernaniko Kultur Koadernoak*; Egunkariaren *Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina*; Eta Kitto! Euskara Elkartearen *Euskaraz irakurri eta idazteko zaletasuna bultzatzeko egitasmoa*; Euskal Aktoreen Batasunaren *Irakurketa dramatizatua*; Euskarabila Kultur Elkartearen *Literatur zaletasuna bultzatzeko egitasmoa*; Jardun Elkartearen *Amodiozko gutunen lehiaketa*; Laixan Elkartearen *Euskal Liburu eta Diska Azoka*; eta Valle Inclán Kultur Elkartearen *Liburuak kalera!* ekimena.

X Euskalgintza eta Bideogintza deialdien bitartez hainbat alorretara iritsiko da dirulaguntza.

S U M A R I O A

- 1 Euskalgintza eta Bideogintza deialdiak
- 2 Laburrak
Jon Etxaide Itarte
Agenda
- 3 Egonaldiak familia euskaldunetan
Euskal Deituren Izendegia
Irakurgaiak
- 4 Pertsonaiak
Lehen begiratuan

Irratia

Bosgarren multzoan, irratietan euskararen erabilera sustatzekoan, 9.158.193 pta. banatu dira hurrengo egitasmo hauen artean: Arrate Irratiaren programazioa, Eta Kitto! Euskara Elkarteak bultzatutako euskarazko irratisaioak hainbat erdal irratitan, eta Irratibide enpresak aurkeztutako Bizkaia Irratiaren programazioa.

Soberakina dela eta, azkenik, orotariko egitarauak laguntzeko 16.484.809 pta. banatu dira 39 egitasmoren artean.

Bideoak

Euskalgintza utzita, hasieran aipatutako *Bideogintza* izeneko deialdiaren bidez, bideoklubetan eta bestelako zirkuitu komertzialetan euskarazko bideoen kopurua areagotzeko dirulaguntzak eman dira. Aurten 17.100.000 pta. banatu dira, iaz baino ia bost milioi gehiago, esku hartu duten enpresen artean, hots, Sociedad Anónima del Vídeo eta Sogedasa. Ekimen honen bitartez berrogeita hiru bideo lagunduko da.



LABURRAK**Liburuen banaketa
Iparraldean**

Euskarazko literatura sustatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 6.500 liburu eskaini dizkie Iparraldeko hiru hezkuntza-sareei: Euskal Haziak, Ikas-Bi eta Seaskari hain justu ere.

Eskaintza hau Eusko Jaurlaritzaren eta herri-ekimenari lotutako taldeen arteko elkarlanaren uzta da, Iparraldean euskarak duen egoerari aurre egin nahian. Funtsezkotzat jotzen da irakurzaletasuna areagotzea, aldi berean hizkuntza bermatzeko. Ikas sare horien bitartez liburuak banatu dira hainbat tokitara: Iparraldeko euskal liburutegietako fondonetara, aipatu hiru sare horietako liburutegietara eta AEK edota Udaleku bezalako erakundeen liburu-fondonetara.

**Renoko euskal
jardunaldiak**


Uztailaren 6tik 9ra Euskal Ikasketei buruzko Nazioarteko Biltzarra izan zen Renon (EEBB). Munduko 70 adituk hartu zuten parte topaketan, horietako batzuk euskaldunak edo euskal jatorrikoak; ehun entzule inguru izan zen eztabaida eta bat-zordeetan.

Munduan zehar sakabanatuta dauden euskal komunitateek XXI. mendean izango dituzten erronkei buruz jardun zuten adituok, euskara, euskal kultura eta euskaltasuna abiapuntu. Jardunaldiok Nevadako Unibertsitateko Basque Studies Programmek antolatutako izan dira, eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren laguntza izan dute, besteak beste. Eusko Jaurlaritzaren izenean Josune Ariztondo, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, eta Iñaki Agirre, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako zuzendaria, izan ziren bertan.

Jon Etxaide Itarte

Ekainaren 30ean zendu zen Jon Etxaide euskal idazle donostiarra. 1920ko martxoaren 27an jaio zen Donostian. Aita, Inazio Maria Etxaide, euskaltzale eta euskaltzaina zuen eta haren euskaltzaletasunak eragin handia izan zuen Jonen heziketan eta zaleztasunean. Till Eulenspiegel-en abenturak euskaratu eta *La Cruz* astekari katolikoan argitaratzen hasi zen, aitik horretara bultzatuta. Itzulpenak ez ezik, sormen-lanak ere argitaratu zituen gerra ostean, *Egan*, *Euzko Gogoa*, *Jakin*, *Herria*, eta beste hainbat aldizkaritan. Genero ugari jorratu zituen; 1950ean eman zuen argitara bere lehen

lana, *Alos-torrea* ipuina, eta jarraian idatzi zituen *Amayur* drama (1951), *Purra purra!* ipuin-bilduma (1953) eta euskal literatura-gintzan oro har, eta narratibagintzan batez ere hain eragin handia izan duen *Joanak joan* nobela historikoa (1955). Lan honetarako Barkoxeko Piarres Topet-en bizipenak hartu zituen oinarri; lan honekin Euskaltzaindiaren saria jaso zuen. Hurrengo urteetan ere hainbat obra aipagarri kaleratu zuen. Aitormen eta ohorezko izendapen ugari jaso zituen; 1956an euskaltzain urgazle izendatu zuten eta 1991n ohorezko. Bestalde, EIZIEK



ohorezko bazkide izendatu zuen lehenik, eta 1991n ohorezko kide. Euskal Idazleen Elkarteak ere ohorezko bazkide egin zuen 1995ean. Azken urteetan, merezitako omenaldi ugari jaso zituen, bere lan eskeraren adierazle.

AGENDA**Miarritzeko Nobela
Txapelketa**

Saria 3.000 liberakoa da eta lanak hurrengo helbidera bidali behar dira, irailaren 15a baino lehenago: Miarritzeko Herriko Liburutegia, Villa Bañuelos, 16, Etienne ibilbidea, 64200 Miarritze. Tel: 05 59 03 12 90 edo 05 59 03 52 37

**Hizkuntzen
Jabekuntzari buruzko
topaketak**


Estatu Espainoleko Hizkuntzen Jabekuntzari Buruzko II. Nazioarteko

Topaketak. Bartzelonan, irailaren 2tik 4ra. Tel: 34-3-487 90 74; Fax: 34-3-402 13 68. ep: mtriado@psi.ub.es. Asteartetan, 9:00tik-13:00ra.

**CAF-Elhuyar Zientzi
Dibulgaziorako
V. Sariak**

Elhuyar Kultur Elkarteak eta Beasaingo CAF enpresak CAF-Elhuyar Zientzi Dibulgaziorako V. Sarirako deialdia egin dute. Ohi bezala, zientziaren eta teknologiararen dibulgazioari lotutako euskarazko lanak sarituko dira.

Bi maila izango dira; batetik, idazle berriek idatzirikozko zientzia eta teknologiararen dibulgazio-artikuluak, eta bestetik, dibulgazio-liburuak. Lanak 1998ko azaroaren 15a baino lehen bidali beharko dira, honako helbidera: Elhuyar Kultur Elkarte Asteasuain polig. 14 20170 USURBIL



Egonaldiak familia euskaldunetan

Azken bi urte hauetan bezalaxe, aurten ere familia euskaldunetan egonaldiak egiteko aukera dute euskara ikasten ari direnek, HABEK antolatutako *Egonaldiak familia euskaldunetan 1998* programari esker.

Euskaltegian ikasitakoa praktikan jartzea, bertako kultura ezagutu eta bizitzea, eta, oro har, eguneroko harremana euskaraz egin ahal izatea dira programaren helburu nagusiak.

Plangintza jada martxan dago, eta 1998ko uztailetik iraila bitarteko hiru hilabeteetan egongo dira ikasleak familiatan. Ikasleentzat egonaldiak hilabetekoak edo bi hilabetekoak dira; hala ere, esan behar da, ia guztiek hilabeteko aukera egin dutela.

Euskaldunen kopurua % 70etik gorakoa den udalerrietako familiak, eta gutxienez lau kidez osatutakoak dira ikasleak beren etxean hartuko dituztenak; ikasleen aldetik, berriz, gutxienez 8. urratsari dagokion euskara-maila dutenak dira.

Egonaldiak Euskal Herri osoko hainbat udalerritan ari dira egiten: Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Komunitatean eta Ipar Euskal Herrian. 1998ko udari dagokionez, 135 ikaslek hartu du parte; ikasle hauek 76 familiatan eta Euskal Herriko 35 herri euskaldunetan egon dira. Eskaintza eta eskari gehienak Gipuzkoako herrietakoak dira (88 ikasle), baina Nafarroan ere nahikoa erantzun ona izan da (32 ikasle). Iparraldean, berriz, 8 ikaslek egingo dute egonaldia eta Bizkaian 7k.

1998ko egonaldietako udalerriak

- | | |
|----------------|-----------------|
| 1 Abaltzisketa | 19 Dima |
| 2 Alkiza | 20 Errezil |
| 3 Altzo | 21 Ezkio-Itsaso |
| 4 Amezketa | 22 Gabiria |
| 5 Anoeta | 23 Goizueta |
| 6 Arano | 24 Ibarla |
| 7 Atarratze | 25 Kanbo |
| 8 Azkarate | 26 Landibarre |
| 9 Azkoitia | 27 Larraul |
| 10 Azpeitia | 28 Legorreta |
| 11 Beizama | 29 Leitza |
| 12 Belauntza | 30 Orio |
| 13 Berastegi | 31 Segura |
| 14 Berrobi | 32 Zaldibida |
| 15 Betelu | 33 Zarautz |
| 16 Bidegoian | 34 Zubieta |
| 17 Busturia | 35 Zuraide |
| 18 Deba-Itziar | |



Euskal Deituren Izendegia

Euskal deiturak euskararen idazkerara eta ohituretara egokitu nahi dituztenentzat erreferentzia fidagarria izateko asmoz, *Euskal Deituren Izendegia* izeneko liburua argitaratu du Euskaltzaindiak, Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eta Espainiako Justizia Ministerioak lagunduta.


Espainiako Legebiltzarrak norberaren deiturak euskaraz jartzeko bidea onartu zuenetik, abizenak euskaraz jartzeko eskabideak iristen hasi ziren Euskaltzaindiara. Behar horri erantzuteko Onomastika Batzordeak bi bekadun jarri zituen lanean; datu-bilketa egin eta aztertu ondotik, gida hau iritsi da. 10.000 deitura daude liburuan jasota.

Irakurgaiak

Urte asko irakasten eta ikertzen jardun ostean, Jan Braun kaukasologo poloniarrek *Euscaro-Caucasica* saiakera-bilduma plazaratu du, eta bide aberatsa eskainiko dio euskararen arkanoei barrena abiatu nahi duenari. Dialog-ek argitaratua, 00-112 Vartsovia, ul.Bagno 3/218, tel./fax 620 87 03.

Abuztu honetarako beste proposamen arinagorik ere bada. Literatura Unibertsala bildumako hiru klasiko hain zuzen: hasteko, Jonathan Swiften *Gulliverren Bidaia*k. Lemuel Gulliver XVIII. mendeko itsasgizon ingelesaren bidaia.

Bigarrenik, 60. hamarkadako fetix bat, Raymond Queneau idazle frantsesaren *Zazie Metroan*. Udaldia legez bizi-bizia, dibertigarria eta poesiaz beterikoa. Azkenik, Graham Greene-ren lan biribil bat, *Giza Faktorea* alegia. Espioi nobela honetan, fedeariko kezkez, amodioaz eta nortasun arazoez dihardu. Ezti eta garratza, ezkorra eta itxaropentsua aldi berean. Sotila eta dotorea benetan.



Maritxu Urreta



Maritxu Urreta idazle eta itzultzaile gipuzkoarra Donostian jaio zen 1915ean. *Zeruko Argia* aldizkarian argitaratu zituen bere artikulurik aipagarrienak, baina artikuluez gain itzulpenak ere egin ditu. Maritxu Urreta hizkuntzetan aditua da; ingelesa eta frantsesa ikasi zituen Madrilako hizkuntza-eskolan. Oro har, gaztelania eta ingelesetik egin izan ditu itzulpenak, esaterako Jose

Luis Muñoyerroren bi antzezlan (*Lartaun, eguzki-semea*; 1960, eta *Illargian ere euskaraz*; 1967, azken hau Maria Dolores Agirrekin batera egin) eta Alice Duermillier-en *Itsas-malda zuriak* poesia luzea. Azken urteetan, Sociedad Fotográfica Guipuzcoana elkarterako hainbat itzulpen egin ditu. 1996az geroztik EIZIEko ohorezko bazkide da.


Jon Patrick

Jon Patrick-ek, Sidneyko Unibertsitateko Informazio Sistemetako katedradunak, ingelesez idatzitako lehen euskal gramatika prestatu du, geroan CD-ROM batean integratuko duena.

John Patrick aspalditik dabil euskara lantzen. Ikasten ari zela ohartu zen anglosaxoiarrek material gutxi zutela euskara ikasteko, frantsesera eta gaztelaniara jo ezean. Hori horrela, Didaktiker enpresako teknikaria den Ilari Zubirekin hitz egin zuen eta hark gaztelaniaz argitaratutako euskal gramatika itzultzen hasi zen.

Gramatika hori orain argitaratzea espero du Patrickek, baina bere asmoa ez da

horretara mugatzen: aipatu gramatika gehi hainbat hiztegi-eduki CD-ROM batean integratzeko asmotan da. Horretarako Euskal Herriko Unibertsitateko informatikari eskaldunen IXA taldearekin ari da elkarlanean. Jakintza-alor askotan aritua dugu: astronomian, kartografian, psikologian, informatikan, arkeologian, etab. Modu bitxi batez, Estatu Batuetako euskal artzainek abeltzaintzan egin ohi dituzten kalkulu matematikoak ikertzen ari zelarik, euskal kulturarenganako interesa piztu zitzaion, eta euskara ikasteari ekin zion. Honelaxe hasi zen gramatika eta CD-ROM hauen istorioa.



Lehen begiratuan

Gurekin hegan izeneko CD-ROMa atera dute Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen. CD-ROM honetako menu nagusia Txirri, Mirri eta Txiribitonon etxea da. Gela asko dago, sorpresaz beteta gainera. Besteak beste, ipuinak, jolasak, musika... Aukera polita beraz haur txikientzako, poliki-poliki jolasean hainbat kontu ikasteko. Berrikuntzaren aldeko apustua eginez, hiru pailazoen marrazki bizidunetako filma ere izango dute laster Euskal Herriko zinema-aretoetan.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.: